

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### **Ondasun higiezin eta jarduera ekonomikoen gaineko zergen 2016ko ordainagirien kobrantza**

Ondoren zerrendatzen diren udal zergen 2016ko ordainagiriak kobratzeari ekingo zaio:

Landa, hiri eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

Ordainagiriak udalaren bulegoetan ordaindu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko ordutegian, 09:30etik 13:30era bitartean.

Borondatezko epean ordainduko dira, 2016ko urriaren 19tik abenduaren 19ra, biak barne.

Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2016ko abenduaren 12an.

Abenduaren 20tik aurrera ordainagiri horiek Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Diru-bilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobra daitezten.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2016ko urriaren 6a

*Alkate-lehendakaria*

*JOSE JAVIER MARTINEZ GARCIA*